

## Iulen Urbiola

# «2000ko dekretua ia egun batetik besterako atzerapauso latza izan zen»

Euskara Kultur Elkargoko zuzendaria da Iulen Urbiola iruindarra. Pazientzia hartu du Nafarroan euskarak duen “kakao juridikoa” azaltzeko. Esan nahi baita dekretuak, ordenantzak eta beste onartzen direla euskara erasotzeko eta batzuek erasoak indargabetzen ahalegintzeko ingeniari-tza juridikoa erabili behar dutela etengabe.

### ONINTZA IRURETA

Argazia: Josu Santesteban

Iruñerriko Aranguren, Galar, Beriain eta Noain (Elortzibar) udalerriak eremu ez-euskaldunetik mistora pasako dira datorren urtean.

Adabakia da, egoera jakin bati begira. Euskarari lotutako egoera desberdinak daude Nafarroan, oztupoak dituztenak.

**Adabakia hitza erabili duzu. Pausoa eman da ordea, eskaera zegoen.**

Batetik, bertako herritarrentzat aurre-rapausoa izango da, dudarik gabe. Baina, bestetik, tranpa egiten du Nafarroako Gobernuak: gertaera horrek konpontzen al ditu Nafarroan euskara sustatzeko eta babesteko eman behar diren pausoak? Ez. Zeren gaur egun,



eta hastapenetik [Euskararen Legeaz geroztik], hizkuntza eremuak dira euskara normalizatzeko, sustatzeko, babesteko oztupo handienak. Jada hori frogatuta dago.

Oztoporik handienak izateaz gain, eremuek nafarren artean diskriminazioa sortzen dute. Norberaren helbidean dago oinarrirituta diskriminazioa, hemen bizi baldin bazara eskubide batzuk dituzu, beste leku batean bizi bazara beste batzuk. Hori ez da onargarria.

Eta hirugarren irakurketa: XXI. mendean, Europa moderno honetan, mugak beste garai bateko afera direla uste denean, Nafarroa barnean mugak ditugu eta batzuek diote muga horiek beharrezkoak direla.

**Miquel Gros i Lladós katalanaren lan mardulak (*Recuperación del Euskera en Navarra*) ez du eremuen ezabaketa proposatzen.**

Liburua oso interesantea da. Nik bat egiten dut dioenarekin, alegia, Nafarroako mapa soziolinguistikoa azken 20 urte hauetan, Euskararen Legea onartu zenetik gaur egunera arte, aldatu da, zeharo aldatu da. Zonifikazioa egin zenean zergatik sartu ziren herri batzuk eremu batean, beste batzuk bestean eta gainerakoak hirugarrenean? Horri erantzuteko dio Gros i Lladósek bere garaian, nahiz eta espreski ez egin, udalerriak hiru eremutan banatzeko euskararen presentziaren ehuneko hamarra, bosta eta bostetik beherakoa hartu zituztela kontuan. Euskararen Legea egin zeneko eztabaida irakurtzen baldin baduzu halako aipamenik ez dago.

**Ez du hainbeste zehazten? Proporziorik ez da ageri eremuak banatzeko?**

Legeak esaten duena da, gutxi gorabehera: “Ondoko udalerriak eremu euskaldunetan daude”, eta izen zerrenda

dator. “Eremu mistoan honako udalerririak daude”, eta izen zerrenda agertzen da. “Eremu ez-euskaldunean gainerako guztiak egongo dira”, ez ditu zerrendatu ere egiten. Ez dago beste irizpiderik legean. Orduan Pegenautek –garai hartako Grupo Moderadoko parlamentaria– hala esan zuen: “Badakigu ez dela egon irizpide zientifikorik eremuak egiteko. Badakigu afera politikoa izan dela”.

**Euskarak hiru eremuetan gora egin duela badakigu, baina nola egin aldarrikapenak inolako irizpide agerikorik erabili ez bazen?**

Ezin dituzu irizpideak erabili aldarrikatzeko, ez daude-eta. Beno, erabili dezakezu aldarrikatzeko liburu honek frogatzen duena: nahiz eta zuek [Nafarroako Gobernua] espreski irizpide bat ez erabili, konturatzen baldin bazarete hau egin zenuten [ehuneko hamar, bost eta bost baino beheragoko proportzioak erabiltzea]. Hori egin bazenuten orduan, orain zergatik mantentzen duzue eredu hori egoera aldatu baldin bada? Hori beti defendatzen ahal dugu. Liburu oso baliagarria izango da diskurtsoa hobeto eraikitzeko.

**Balio duena zer da orduan, gizartearen eskaria, presioa?**

Gauzak aldatzeko? Gehiengoaren borondatea.

**Urtea joan eta urtea etorri ez da “tokatzen” ordea.**

Ez da tokatzen, eta egoera oso latza da. Euskararen Legea oso anbigua da eta horrek ahalbideratzen du hizkuntza politiketan egun batetik bestera 180 graduko aldaketak egotea.

1986tik hona bost saiakera edo gehiago egon dira Euskararen Legea aldatzeko eta denek porrot egin dute. Gehiengoaren blokeoa egon delako; azken finean UPN eroso eta ados dagoelako zonifikazioarekin. PSNk, berriz, biltzar batean onartu zuen ponentzian

horrelako zerbaiteko hizkuntza politikari buruz: “Nafarroaren afera berezia da, erakunde propioak ditu eta zonifikazio linguistikoa. Horretan sinesten dugu eta hori onartzen dugu”. Zergatik egoera ez den aldatzen? PSNk eta UPNk ez dutelako nahi.

**Elkarrizketa honetan ageri ez bada ere, zeuk azaldu didazu Nafarroako “kakao juridikoa” 1986ko Euskararen Legearekin hasi eta gaur arte, baita orduz gerotik EKEk beste erakunde batzuekin batera aurkeztutako helegiteak ere. Zein izan dira momentu gogorrenak euskararentzat?**

2000. urtea. Beno, 2000 baino lehen lehenengo pausoak sumatu ziren. 2000ko foru dekretua ia-ia egun batetik bestera emandako atzerapauso oso latza izan zen. Latza diot, esan nahi baitut eremu mistoan bizi garen euskaldunok ia-ia eskubiderik gabe geratu ginela, praktikan daukagun eskubide bakarra da gure seme-alabak euskaraz matrikulatzea. Eta ez da

“Euskararen Legea oso anbigua da eta horrek ahalbideratzen du hizkuntza politiketan egun batetik bestera 180 graduko aldaketak egotea”

ahaztu behar, nahiz eta eremu mistoan %20a izan euskalduna, zenbaki absolututan, eremu mistoa da euskaldun gehien dagoen tokia Nafarroan. Eremu euskaldunean ez dago eremu mistoan adina euskaldun. Beraz, Nafarroako euskaldun kopururik handiena eskubiderik gabe gaude, ahaztu gabe eremu ez-euskalduneko euskaldunak.

Dekretuez gain [2000koa eta 2003koa], Iruñako Udalaren aferak ere jarraitu ditugu. 2000ko dekretua

atera zenean zer egin zuen Udalak? Hauxe esan zuen: Dekretua Nafarroako Gobernuarena denez nik ezin dut aplikatu euskararen ordenantza.

**Alegia, Udalaren ordenantzak euskararentzat hobeak ziren dekretua baino.**

Bai. Udalak zioen Gobernua gainetik zegoela. Beraz, dekretuak, nolabait, ordenantza kateatzen du.

**Komeni zitzaion dekretuari kasu egitea.**

Bai, baina ez dugu ahaztu behar Espainiako Konstituzioak autonomia lokala ezartzen duela. Bere aferetan udalak bere kompetentziak ditu. Iruñako Udalak hori kontuan hartu ez zuenez kontra jo genuen eta arrazoia eman ziguten. UPNk hori ikusita araudia aldatu zuen. 2000tik hona euskararen ordenantza hiru aldiz aldatu du, euskararen presentzia murrizteko irizpidea segita, noski.

**2000ko dekretua eraso gogorra, beraz.**

Eta orain beste momentu latz baten aurrean gaude hezkuntzan. Elebitasunaren onuretan oinarrituta ingelesa eta gaztelania ezarri nahi dituzte.

**Euskararen Nafar Institutuarekin ba al duzue harremanik?**

Protokolozko erlazioak izan ditugu, lanekoak ez. Gu, dena den, prest gaude kolaboratzeko, gure prestutasuna helarazi diogu Xabier Azanza zuzendariari. Orain berak jakingo du gurekin lana egin nahi duen ala ez. Ez dugu ahaztu behar gurekin lana egiteak esan nahi duela euskara aurrera eramatea Nafarroan.

**Horrekin zer esan nahi duzu, itxaropen gutxi duzuela?**

Itxaropena? Dugun historiarekin esperantzak ez dauka lekurik une honetan, lanak dauka lekua. Nafar euskaldun gehienak eskubiderik gabe gaude eta urteak daramatzagu horrela. ■

Babeslea: Bergarako Udala

